

“NEGAR EGITEN DUTEN ZUHAITZAK” ARGAZKI DIGITAL LEHIAKETA

Joseba Plazaolaren omenez
2008ko udazkena

Espainiako Arbolazaintza Elkarteak, Itsasmendikoi Fraisororekin elkarlanean, “**Negar egiten duten zuhaitzak**” izeneko argazki lehiaketa antolatu du.

GAIA

Lehiaketa honekin, gaia hoberen islatzen duten irudiak saritu nahi ditugu: arrazoi desberdinak direla eta (joan egin direnengatik, besteen historien lekuko isilak direlako, garai batean edukitakoa galdu izanagatik, esan nahi baina ezin esateagatik, ikusi bai baina ulertu ezin dutenagatik...) negar egiten duten zuhaitzak.

Argazkietan zuhaitzak agertu beharko dira, bere adarrekin, bere malkoekin, bere azaleko zauriekin, erabateko isiltasunaz edo bere hostoen negar xuxurlariaz..., hau da, naturaren hizkuntzaz, askotan sentitu arren transmititzen jakin ez edo ezin izan dugun hori adierazten duten zuhaitzak, hain zuzen ere.

Lehiaketa honetan parte hartzeko honako oinarriak erabat onartu behar dira:

OINARRIAK

1. PARTE HARTZAILEAK. Lehiaketan pertsona fisikoek hartu ahal izango dute parte, adin nagusikoek eta nazionalitate guztietakoek.
2. GAIA. Argazkiek lehiaketako gaiarekin eta edukiarekin bat etorri beharko dute. Lehiaketako antolaketa batzordeak lanak baztertzeko aukera izango du, lehiaketako gaiarekin bat etortzen ez badira.
3. BIDALKETA. Argazki guztiak bi helbide elektroniko hauetakoren batera (batera bakarrik) bidali beharko dira: info@earboricultura.com (Espainiako Arbolazaintza Elkarteak) edo ficfraisoro@itsasmendikoi.net (Itsasmendikoi Fraisoro). Hala nahi izanez gero, formatu digitalean (CD, DVD) ere bidali ahal izango dira Espainiako Arbolazaintza Elkartera (Jardí Botanic. C/ Quart 80. 46008. Valencia) edo Itsasmendikoi Fraisorora (Elbarrena auzoa. 20159 Zizurkil, Gipuzkoa), dokumentu batean idatzita adieraziz zein argazki bidali diren.
4. EPEAK. Aurkezteko epea 2008ko urriaren 27tik abenduaren 10era izango da. Epez kanpo iritsitako lanak ez dira lehiaketan sartuko. Lan asko aurkeztuz gero, antolakuntzak aukeraketa bat egiteko aukera aztertuko du.
5. LANEN AUKERAKETA. Argazkiek argitaratu gabekoak izan beharko dute, eta egilearenak berarenak. Ezin izango dute 5 MG baino gehiago eduki. Zuri-beltzean, koloretan edo beste edozein argazkigintza-tekniketan egon ahal izango dira. Egile batek gehienez 5 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiak bidalitako mezu elektronikoan honako datuak ere agertu behar dira: **izen-abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa eta IFK**. Era berean, beharrezkotzat joz gero irudiaren titulua ere bai.
6. AUKERATUTAKO LANAK ERAKUSTEA. **Finalerako aukeratutako argazkiak Fraisoroko Itsasmendikoin (Zizurkil, Gipuzkoa) egongo dira ikusgai abenduaren 15etik 23ra bitartean.** Espainiako Arbolazaintza Elkartearen web gunean (www.earboricultura.com) eta ITSAMENDIKOIrenean (www.itsasmendikoi.com) ere jarriko dira ikusgai. Irabazten duten argazkiak “La Cultura del Árbol”, elkartearen aldizkarian ere agertuko dira.

JOSEBA PLAZAOLA ARGAZKI DIGITAL 2. LEHIAKETAREN OINARRIAK
AEA- Itsasmendikoi

7. EPAIMAHAIA. Epaimahaia Espainiako Arbolazaintza Elkarteko eta Itsasmendikoi Fraisoroko kideek osatuko dute.
Epaimahaiaren erabakia nahitaez onartu beharko da, eta Euskal Herriko Arbolazaintza Jardunaldietan jakinaraziko da. Epaimahaiak saria inori ez emateko aukera izango du.
8. SARIAK. Epaimahaiak finalerako 20 argazki aukeratuko ditu, lehiaketaren irizpideetara ondoen egokitzen direnak, kalitate teknikoa zein alde artistikoa baloratuz. Finaleko 20 argazkien artean hiru sari emango dira:
 - Lehenengo saria: AEAKo (Arbolazaintzako Espainiako Elkarte) eta ISAKo (Arbolazaintzako Nazioarteko Elkarte) urtebeteko kuotak, AEAK finantzatutakoak, eta euskal pintore ezagun batek irabazi duen argazkia islatzeko margotutako koadroa, Fraisoroko Itsasmendikoik eskainia.
 - Bigarren saria: AEAKo eta ISAKo urtebeteko kuotak, eta Arbolazaintzako Espainiako Elkarteak emandako liburu sorta bat.
 - Hirugarren saria: AEAKo urtebeteko kuotak, eta Arbolazaintzako Espainiako Elkarteak emandako arbolazaintzari buruzko liburu bat, eta Euskal Herriko produktu gastronomiko tipikoen sorta bat, Fraisoroko Itsasmendikoik eskainia.
9. LANEN JABETZA. Finalera iritsitako eta saria jasoko duten lanen jabetza Espainiako Arbolazaintza Elkarteak eta IMK Fraisorok eskuratuko dute. Autoreek argazkien jabetza intelektuala mantenduko dute.
10. KODE ETIKOA. Naturaren argazkiak ezinbesteko osagai dira honen baloreak eta kontserbatzeko beharra gizartean zabaltzeko. Horregatik, lehiaketan parte hartzen duten guztiek kode etiko bat gorde beharko dute, bakoitzaren adierazpen artistikoa mugatu gabe ingurumena errespetatzeko sortutakoa.
 - Argazkia lortzea baino garrantziitsuagoa da helburuaren ongizatea.
 - Argazkiaren gaia kokatuta dagoen lekura iristeko, publikoa zein pribatua izan, beharrezkoa da dagokionari baimena eskatzea.
 - Ezin izango da manipulatu argazkia atera nahi zaion hori, horrekin arriskuan jartzen bada edo bere osotasuna aldatu.
 - Argazkiak ateratzerakoan ez nabarmentzen saiatu beharko da, bertan ibiltzen den jendea ez gogaitzeko. Kontuan izan parke edo lorategiak, askotan, lasaitasunaz gozatzeko eremuak direla.
 - Zuhaitzen edo haien inguruaren aurkako lege hausketaren bat ikusiz gero, dagokion agintariari abisua eman beharko zaio.
 - Denon elkarlana bultzatuko da naturaren babesa hobetzeko.